

2 Argiaren pedagogia

Uztailak 4, 5 eta 6. DONOSTIAko EHU.

9:00-14:00

Argia inguruan dugun elementua da eta beste edozein elementu bezala, jolasera-ko tresna egokia da. Haurrak argiarekin jolasean dabiltzanean magiaz, zientziaz, aurkikuntzaz, arteaz eta gozamenaz betetako espazio sortzaile eta inspiratzailean murgiltzen dira. Baina nola diseinatu, prestatu eta garatu ditzakegu argiarekin jolas-teko espazio eta jarduerak?

Formazio honetan, argiaren eta kolorearen oinarri zientifikoaz gain, argia, kolorea eta argi faltak eragiten duenaz jardungo dugu, argiarekin eta kolorearekin lan egiteko jarduerak eta proposamenak izango ditugu aztergai; bai eta argiaren pedagogia aurrera eramateko espazioei buruz.

Saio hauetan, argiarekin jolasteko jarduerak, baliabideak eta materialak ezagutu eta probatuko ditugu. Baina batez ere, ongi pasako dugu, izan ere, argia elementu magiko eta erakargarria da haur zein helduentzat.

➤ Norentzat

Haur Hezkuntzako 2. zikloa edota Lehen Hezkuntzako 1. zikloko hezitzaileentzat eta gaien interesa duen edonorentzat.

➤ Landuko diren gaiak

- Argiaren oinarri teorikoak.
- Argiarekin jolasteko euskarriak.
- Proiektzioak eta itzalak.
- Fluoreszentzia eta fosforesezentziak.
- Etxola eta kobazuloak.
- Argi naturala.
- Light Painting-a.
- Argiarekin jolasteko espazioak.

➤ Metodologia

Formazio bibentziala eta praktikoa izango da.

* **Itsaso PAGOAGA ZALOÑA.** Olgeta Jolaserako Baliabide Zerbitzuko arduraduna eta kudeatzailea. Hezkuntza espazioen diseinuan ikastaroa eta Argiaren pedagogian formatua.